**E**randioko Fano auzoko alaba naiz. Gezurra dirudi, baina, nahiz eta bertakoia izan, euskaldun berria naiz. Amaren familia euskaldun zaharra da. Hori dela-eta, nire amak txikitak bazekien. Hala ere, ama gaixoak ezin izan dit euskara transmititu, ahaztu egin zitzaiolako; gerra garai-koia da-eta bera.

Nik betidanik euskara maitatu izan dut, beraz, txiki-txikitatik euskara ez jakiteak amorrua eman dit; gure hizkuntza izanik... Bai, horixe! Hala izan da. Urteak pasa ahala, seme-alabak izan ditut. Geroztik, burua euskaltegian gero eta hurbilago ikusi dut haietkin hitz egin nezan. Horregatik, duela hamar urte inguru, Leioako AEK-ko euskaltegian gogoz eta ilusioz ikasten hasi nintzen. Pare bat urte egon eta gero, Bilboko euskaltegi batzuetan egon naiz. Horrez gain, hainbat barnetegitan ere izan naiz.

Gaur egun, berbalagun bi taldetara joaten naiz. Nabaria denez, oso murgilduta nago euskararen munduan. Gainera, hori gutxi balitz, euskalraz gozatzen jarraitzen dut.

¡Os animo a todos/as a aprender nuestro idioma gozando del mismo!  
Anima zaitezte!



IÑAKI VIDAL MONDEJAR  
Bartzelona/Getxo

## «Lagun horiek ez dakitena da haiek egin nautela euskaldun»

**B**ost urte nituela, aitaren lanbideak behartuta, Algortatik Bartzelona aldera joan ginuen familiako guztiak. Ez nintzen txarto bizi katalanezko oihartzunen artean; baina hazitakoan, jakin-mina edo herrimina dela eta, hasi nintzen gure hizkuntza ezagutzen. 29 urterekin jaoterrira bueltatu nintzen.

Euskalduntzearen hasiera topatu behar badut, guraso erdaldunei Katalunian ikasitako berba eta abesti zatietan egon liteke... Gaur esan dezaket euskalduna naizela, makinatxo bat euskaldunek euskalduntzat hartu nautelako. Azken urteotan ezagutu ditudan lagun horiek beharbada ez dakitena da haiezek egin nautela euskaldun; bakoitzak bere erara, zer edo zer emanez. Bartzelonako Euskal Etxekoek hizkuntzarekin jolasteko gogoa. Getxoko euskaltegiako irakasle batzuek haien prestasuna eta pazientzia. Berbalagun-taldeko hiztun bikainen batek begirunea eta denbora; beste hiztun ez horren bikain batzuek naturaltasuna eta kemenia. Baserriren bateko aitita-amamek herri-berbaeraren bizitasun eta aberastasunaren berri... Gainera, haietako askok maitasun eta bizi-poz itzelak ere eman dizkidate. Euskalduna izateak ez duela ezertarako balio esan didanik ere egon da, baina ez daukat astirik horretaz idazteko, zorionez; orain pentsatu behar dut zelan itzuli emandako guztia. Euskaraz, jakina.



JON SINDREU LARRAÑAGA  
Londres/Bartzelona

## «Saiatzen ari naiz Londresetik berreskuratzen, bizitzen...»

**O**utside Bethnal Green tube station, the auxiliary verbs of nor-nori-nork don't sound any easier. No matter how much I try to memorise them on my way to the Euskal Etxea in London, they fade away faster than I can repeat them in my head. And yet, when my Basque teacher utters words I haven't heard in 15 years, I somehow understand.

És una experiència difícil de descriure, la de sentir els mots d'una llengua materna oblidada. Des que vaig néixer, ma mare em parlava en euskeria i el pare ho feia en català. Si algú es pregunta si realment existeix el bilingüisme perfecte, jo amb 3 anys n'era testimoni. Vivint a Barcelona tota la vida, la tragèdia va ser esberlar la ficció que ma mare no parlava perfectament el català.

Hamar urte nituen konturatu nintzenean euskara ia galdua nuela. Nire amaren lagunak, Pilik, Bilbotik deitu zuen eta nik ezin izan nuen euskaraz ondo erantzun. Orain 27 urte ditut eta saiatzen ari naiz Londresetik hizkuntza berreskuratzen, bizitzen, sentitzen... Euskaraz hitz egitea niretzat oraindik zaila da, baina hitzak nire buruan eta nire bihotzean beti ezagunak egiten zaizkit. Izugarritzko esperientzia izaten ari da.



JOSE RAMON ONANDIA LONGARTE  
Getxo

## «Euskara ikasten eskarmentua, eta gogoz egiten ditudan ekintzak»

**D**uela urte batzuk, 62 urterekin eta erretiroa hartuta, astia sobera nuenez, aspaldi gogoa nuen euskara ikasteari berriro ekin nion. Lauaxeta AEK euskaltegian egin nituen aurreneko urratsak, gero J.A. Agirre; egun, bertoko mintza praktika taldean nabil; udan astebetek ematen ditut barnetegian. Euskara ikasteko modu egokiena, euskara eguneroko bizitzan barneratzean datza. Hori lortzeko, besteak beste, hilero euskaraz eleberri bat irakurtzeko ohitura dut, baita noizik behin artikuluren bat idazten saiatu ere; baina garrantzitsuena, nire ustez, mintzapraktika da. Euskaltegian mintzapraktika talde bi ditugu; euskaldun berriak zein zaharrak daude, eta guztiok elkarrekin hizketan aritzen gara, azterketarik gabe, presiorik gabe, lagun berriak eginez, edozelako gairi buruz mintzatzen; giro ederrean. Berbalagun ekimenean ere parte hartu ohi dut; Egizuren beste ekintzetan ere bai. Hori gutxi balitz, Donostiako Udalak antolatutako Mintzanet.net programaren parte-hartzalea naiz hasieratik. Astero hiru pertsonarekin euskaraz hizketan aritzen naiz, Skype-ren bidez, ordubetez; etxetik irten gabe, munduko edozein tokitako euskara zaleekin. Ez dakit euskara asko edo gutxi ikasi dudan, baina saiatzen eta saiatuko naiz euskaraz bizitzen eta euskaraz erosotasunez jarduten, hori baita nire helburua.

# If the diversity of languages is of worldwide wealth then Basque is the colour of our treasure.

Hizkuntzen aniztasuna mundutarron aberastasuna izanda, gure harribitxiaren kolorea euskara da.

## «Euskal folklorearen grina sustatu nahi dugu»

**Aratz Dantza Taldeak** 35 urte bete ditu aurten.

Euskararen Egunaren harira, taldea omendu dute, urte horietan guztietan euskararen alde egindako lanagatik.

IKER RINCON MORENO ▶

**J**oan den azaroaren 29an, Aratz Dantza Taldea omendu zuten Gorlizen, euskararen alde egindako lanagatik. Euskararen inguruaren sortu zen taldea, duela 35 urte, eta gaur egun euskara eta euskal kultura bultzatzeko hainbat ekimen antolatzen ditu urte osoan.

**Euskararen Egunaren harira, taldea omendu berri dute Gorlizen. Zelan harta duzue omenaldi hori?**

Ilusio handiz, egia esanda. Udan herriko jaietako pregoilari izendatu gintuzten, eta hori gauza handia izan zen guretzat. Beraz, orain berriro ere guomentzeak poztasun handiaz hartu dugu.

**Zelakoa izan da Aratz Dantza Taldeak euskarari egin dion ekarpena urte horietan guztietan?**

Gure taldea betidanik egon da euskarari oso lotuta. Entseguak euskaraz egiten ditugu, agerraldietan hizkuntza biak (euskarra eta gaztelania) erabili izan ditugu beti aurkezpenak egiteko; era berean, Korrikan eta herrian euskarari lotutako edozein ekintzatan hartzen dugu parte. Azken finean, euskara gure egunerokotasunean erabiltzen saiatzen gara, herrian gure hizkuntzaren presentzia areagotuz.

**Aurten 35 urte bete dituzue. Zelan sortu zen taldea?**

Izan ere, taldea euskararen inguruaren sortu zen. Gurasoen talde bat euskara ikasteko asmoz hasi zen elkartzen, eta

horrek jotak ikastera eraman zituen. Hala, modu horretan jaio zen taldea, euskara eta euskal folklorea ikasteko gogotik.

**Zelakoa izan da Aratz Dantza Taldearen bilakaera hasieratik gaur eguneira arte?**

Taldea sortu zenean, 1980an, 15 edo 20 pertsonak besterik ez zuten taldea osatzen. Urteak aurrera joan ahalia, 120 dantzari baino gehiago izatera heldu izan gara. Hasieran, herriko jaietan baino ez zen dantzatzen, baina urte horietan guztietan Euskal Herriko hainbat herritan dantzatu izan dugu, baita Euskal Herritik kanpo ere: besteak beste, Katalunia, Galizia edo Menorcako dantza-taldeekin trukeak egin ditugu. Horrez gain, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrean federatutu gaude, eta Bizkaiko eta Euskal Herriko Dantzari Egunetan hartzen dugu parte. Dena den, Aratz Dantza Taldean familia bat izan gara beti, eta hori ez da aldatuko.

**Zein da edo zelan ikusten duzue euskararen eta euskal kulturaren egoera Gorlizen?**

Egia da oraindik pauzo gehiago eman behar direla egoera idiliko bat lortzeko eta euskara guztiz normalizatzeko; baina guri dagokigunez, behintzat, aurrerapauso nabarmenak ikusi izan ditugu. Gero eta gehiago dira euskarra etxeko edo ama hizkuntza dutenak, eta hori kalean ere nabaritzen da. Guk gure dantzarien gurasoekin ditugun harremanak gero eta gehiago dira euskaraz. Euskal kulturari dagokionez,



Azaroaren 29an egin zioten omenaldia Aratz Dantza Taldeari Gorlizen.

oso presente egon izan da beti gure herrian.

**Zer egin behar da horri guztiari bultzada emateko?**

Esaten den bezala, «hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dute-

lako baizik». Azkenean, gugan dago euskara dagokion tokian jartzea.

**Zein da taldearen helburua?**

Batez ere, euskal folklorearen grina sustatzea belaunaldi berriengan, galdu ez dadin. Eta nola ez, ondo pasatzea! ◀

## ABENDUAK 7 - 8 DICIEMBRE

*Andra Maria Sortzez Garbiaren Eguna  
Festividad de Santa María de la Purísima Concepción  
GORLIZko Elizako plazan / Plaza de la Iglesia. GORLIZ*

### ABENDUAK 7 DICIEMBRE

17:00 - 21:00	Haur Parkea (puzgarriak, tallerra, ludoteca 0 urtetik gorakoentzat...) Parque Infantil (hinchables, taller y ludoteca a partir de 0 años)
19:00 - 21:00	Disko Festa

### ABENDUAK 8 DICIEMBRE

08:00 - 14:30	VIII. Karakol txapelketa gastronomikoa bizkaitar saltsan VIII Concurso gastronómico de caracoles en salsa vizcaína
10:00 - 14:30	X. Gabonetako Azoka X. Feria de Productos Navideños
11:30	Meza, Lirain abesbatzak abestua Misa, cantada por el coro Lirain
	Umeen karakol txapelketara izen-ematea Inscripción a la carrera infantil de caracoles
12:30	12 urtetik beherako umeen Karakol txapelketa Carrera de caracoles para menores de 12 años
	Trikitillariak herrikik / Pasacalles con trikitillaris
13:30	Kazuelen aurkezpena / Presentación de cazuelas de caracoles
14:30	Sari-banaketa / Entrega de premios



# Tutte le lingue saranno nostre, solo se ciò che è nostro sarà davvero nostro.

Hizkuntza guztiak gureak dira gure hizkuntza geurea bada.

## Euskaltegiak

### AEK

#### Lauaxeta euskaltegia

Iparbide, 6-beheia; 48991 ALGORTA (GETXO)  
944 304 734  
lauaxeta@aeck.eus  
www.aek.eus/blogak/uribekosta

#### Lamia euskaltegia

Luis Bilbao Libano, 8; 48940 LEIOA  
944 646 063  
lamia@aeck.eus

#### Jentilboso euskaltegia

Kristo, 8; 48620 PLENTZIA  
946 773 607  
jentilboso@aeck.eus  
Iberre plaza, 5; 48640 GORLIZ  
946 773 646  
jentilboso@aeck.eus

## Udal euskaltegiak

### Erandioko Udal Euskaltegia

Desanexio, 4-3.; 48950 ALTZAGA (ERANDIO)  
944 676 075  
erandio.eusk@euskalnet.net  
www.erandio.net

### Getxoko Udal Euskaltegia

Lope de Vega, 12-3.A; 48930 ROMO (GETXO)  
944 646 299  
euskaltegi@getxo.eus  
www.getxo.eus/eu/euskaltegi

### Mastitxu Euskaltegia

Iparragirre Etorbidea, 78; 48940 LEIOA  
944 640 002  
euskaltegi@leioa.net  
www.euskaltegileioa.com

### Sopelako Udal Euskaltegia

Enrike Urrutikoetxea, 10; 48600 SOPELA  
946 763 154  
euskaltegia@sopelana.com

## Bestelakoak

### Jose Antonio Agirre

Algortako Etorbidea, 104; 48991 ALGORTA  
944 606 671 / j.a.agirre@euskalnet.net  
www.jagirre.net

### Uztarri umeen euskaltegia

Jose Antonio Agirre euskaltegia  
944 606 671 / uztarrialgorta@gmail.com

## Hizkuntza-eskolak

### Getxoko Hizkuntza Eskola

Eskola plaza, z/g; 48930 AREETA (GETXO)  
944 805 238 / 014865aa@hezkuntza.net  
www.eoigetxoheo.hezkuntza.net

# Mil y una oportunidades eta euskara erabiltzeko

**Helduek euskaltegietan daukate** euskara ikasteko aukera; elkarteeek eta administrazio publikoek erabilera sustatzen dute.

**E**n la comarca de Uribe Kosta son mayoría los centros de enseñanza que tienen como lengua vehicular el euskara; todos ellos funcionan en modelo D o dicho modelo es el predominante. Ya sean escuelas públicas, privadas o ikastolas, y al margen de los resultados obtenidos, todas ellas tienen como objetivo dotar a las nuevas generaciones de un conocimiento extenso de nuestra lengua. En cuanto a la euskaldunización y alfabetización de adultos los euskaltegis juegan una importante labor. Sin lugar a dudas, AEK tiene un papel predominante; la coordinadora de euskaldunización y alfabetización cuenta con una amplia red de centros: Lauaxeta (Algorta), Lamia (Leioa), Jentilboso (tanto en Plentzia como en Gorliz); también imparten clases en lo que era el Kzgunea de Urduliz, en la parte baja del ayuntamiento.

Tanto en AEK, como en los euskaltegis municipales (Getxo, Erandio, Leioa y Sopela) y en el centro privado Jose Antonio Agirre de Algorta, se imparten todos los niveles de euskaldunización y hay cursos para la obtención de títulos homologados. Además, la coordinadora de euskaldunización y alfabetización de adultos ofrece cursos *online* y de autoaprendizaje a aquellos que no pueden acudir a clase todos los días; o da la posibilidad de ir los sábados, en algunos niveles. Todo ello sin olvidar las clases que reciben en sus propios institutos alumnos y alumnas de Bachiller que quieren preparar los exámenes de HABE. Esa apuesta por la descentralización también la está llevando a cabo, entre otros, el euskaltegi municipal Mas-



Ehunka lagun dabiltza eskualdeko euskaltegietan ikasten.

## De 0 a 6 años de edad

Uztarri ofrece cursos dirigidos a edades desde los 6 años hasta los 16. El objetivo principal es impulsar y normalizar la expresión oral en euskara mediante actividades lúdicas (cuentos, teatros, canciones...), así como reforzar el trabajo escolar en la asignatura que imparten los centros de enseñanza reglada. Las clases se imparten en el colegio Juan Bautista Zabala de Algorta, situado en la calle del mismo nombre. En cuanto al horario, son tres horas semanales, los lunes y los miércoles o los martes y los jueves. Para ponerse en contacto con Uztarri basta con dirigirse al euskaltegi Jose Antonio Agirre.

titxu de Leioa; los alumnos de Pinueta, San Bartolome y Lamiako tienen la oportunidad de recibir las clases en su propio barrio.

### Comerciantes y hosteleros

Por otra parte, son varios los euskaltegis que por medio de programas como Dendaketen ofrecen cursos básicos de euskara para atención al cliente, tanto en comercios, como en hostelería. Esta diversificación llega a tal punto que, entre otros, en el Euskaltegi Municipal de Sopela, hay cursos especiales para monitores y monitoras de deportes. También hay cursos destinados a padres y madres que queriendo mejorar su capacidad lingüística están interesados en la práctica del idioma, o quienes desean adecuar su nivel de euskara para así poder ayudar a sus hijos e hijas en los estudios.

En cuanto a los ayuntamientos de la comarca, algunos de ellos ofrecen subvenciones para el estudio del euskara en los euskaltegis de la zona. ◀

# Essendo la varietà di lingue una ricchezza mondiale, è l'euskara il colore del nostro tesoro.

Hizkuntzen aniztasuna mundutarron aberastasuna izanda, gure harribitxiaren kolorea euskara da.

# S para aprender euskera beste mila aukera



Bizarra Lepoan-ek antolatutako Gabonetako Bapiruke kolonia irekietan izena emateko aukera zabalik dago. BIZARRA LEPANO EUSKARA ELKARTEA

Euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, hamaika dira udal erakundeek eta herri-eragileek aurrera daramatzaten ekimenak; horien artean, entzute handia lortu dute berba-taldeek. Berbalagun, mintzakide edo solaslagun egitasmoek euskaraz egiteko ohiturarik ez daukaten lagunak ohitura daukatenakaz elkartzen dira, konfiantza eta gune berriak eduki eta euskaraz jarduteko. Horretarako, berbalagunek gustuko daukaten jardueraren bat baliatzen dute. Bizarra Lepoan Euskara Elkartea 1996an abiatutako berbalagun-projektua 2000. urtean hartu zuen bere gain Egizuk; Bizarra Lepoan bera eta Getxo udalerriko hiru euskaltegiak (Lauaxeta AEK, Udal Euskaltegia eta Jose Antonio Agirre) dira egitasmoaren kideak. Beste askoren artean, Aitzu! eta Berbots elkartekaz berba-txangoak egiten dituzte; aipatutako talde erandioztarrak 10 urte daramatza berbalagun egitasmoagaz. Hala ere, egon badaude eskualdeko euska-

## Utilización y transmisión

El proyecto Gurasolagun tiene como objetivo fomentar el uso del euskara entre los padres y madres de hijos e hijas menores. Nace con la vista puesta en la importancia que le damos a la transmisión de la lengua. Las sesiones se pueden realizar de diferente manera: tomando un café, jugando con los niños en la calle, dando un paseo por el monte, haciendo talleres. Además de las asociaciones de euskara, las administraciones públicas también tienen interés en este tipo de iniciativas; cabe destacar el programa Barikuetan Jai!, del Ayuntamiento de Leioa, o Euskaraz Olgetan!, de la Mancomunidad.

ra-elkartetatik kanpo mintzapraktika proiektuak dauzkaten beste eragile edo erakunde batzuek: bederatzi urte dira, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Uribe Kostako Berbalagun egitasmoa martxan ipini zuenketik; Leioako Mastixtu udal euskaltegiak, berriz, joan den ikasturtean abiatu zuen Berbaldun egitasmoa. Azkenik, gazteen artean eragiteko sortu da Getxoko Mintzakuadrillak egitasmoa; Leioako campusean, ostera, eredu hori moldatu egin dute: martitzenero eta egunero elkartzen dira mintza-bazkaria egiteko.

### Egitasmo berriak

Berba-taldeak baino gehiago dira euskara-elkartek, eta abian dituzte egitasmo berriak. Berbalamiñe taldearen desagerpenak utzitako hutsuneari aurre egiteko, Konpromisoen Liburua asmatu dute Leioan. Euskararen alde zer egin dezaketen pentsatzeko aukera edukiko dute herritarrek eta taldeek, udaberri arte. ▶

## Euskara-elkartea

### Getxo

#### Bizarra Lepoan

Martikoena, 16-2. eta 4., 48992 ALGORTA  
944 910 387 / info@bizarralepoan.org  
www.bizarralepoan.eus

#### Jarduera batzuk:

- Bapiruke kolonia irekiak umeentzat
- Antzerkia eta ipuinak helduentzat
- Toponimia ibilbideak udalerrian

#### Egizu Getxo Euskaldun

Martikoena 16, 2-3, 48992 ALGORTA  
619 935 541 / egizugetxo@gmail.com  
www.egizu.eus

#### Jarduera batzuk:

- Berbalagun egitasmoa
- Sendi egitasmoa, aita-amentzat
- Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa (UKITX)
- Bizilagunak egitasmoa, etorkinakaz
- Beharsarea.net (lana eskaini eta eskatzeo)
- Egur-taila ikastaroa, mendi-irteerak, bzikleta-irteerak, berba-txangoak...

### Erandio

#### Berbots Erandion Euskaraz

berbots@gmail.com / www.berbots.eus

#### Jarduera batzuk:

- Berbalagun eta gurasolagun egitasmoak.
- Kanpomartxo, Erandioko euskaldun eta euskaltzaleen eguna.
- Ekintza musikatuak, ikastaroak, afariak, berba-txangoak...

### Sopela

#### Aitzu! euskara-taldea

aitxuizuba@gmail.com/aitzu.blogspot.com

#### Jarduera batzuk:

- Kirolean ere euskaraz! kampaina
- Erromeriak, berba-txangoak...

## Beste ekimen batzuk

#### Uribe Kostako berbalagunak

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea  
ukberbalagun@gmail.com  
ukgurasolagun@gmail.com

#### Berbaldun Leioa

688 850 129 / berbaldun.leioa@gmail.com

#### Getxoko Mintzakuadrillak


619 935 541 (WhatsApp mezua bidali)

#### Mintzabazkariak

- Alagala euskara-taldea
- EHUKO Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- Leioako campusa
- ztfeuskera@gmail.com

# كل اللغات ملکنا اذا ما كانت لغتنا حقا ملکنا

*Hizkuntza guztiak gureak dira gure hizkuntza geurea bada.*



IRATI ELORRIETA AGIRRE  
Idazlea. Algorta/Berlin

## «Baskisch egiten dugu Berlinen»

Aitzerritik euskararekin dudan lotura nire familiarekiko harremanean eta literaturarekiko harremanean oinarritzen da batez ere. Familia, zentzu zabalean. Atzerrian bizi bai, baina Euskal Herriko noanean, nire hurbileko pertsonak euskaldunak baitira, ia denak. Eta Berlinen dudan familiak, orain bai, zentzu hertsienean, bi euskaldun ditut: Semeak. Hauenbat ere, Euskal Herriko goazenean inguru euskalduna izatea erabateko garrantzia duen zerbait da. Inguru euskaldun hori gabe, ez dakit ba lortuko nukeen umeek euskaraz jakitea! Eta are gutxiago, euskaraz egitea...

Literatura hartu dut ahotan familiarekin batera. Besteak beste, hizkuntzarekin lotzen bainau euskaraz idazteak eta euskaraz irakurtzeak. Honen garrantzia hasierako kolpean eman dezakeena baino handiagoa da... Euskaraz egiten duen barruko ahots batia arnasa ematen baitio, kanporantz, semeen salbuespenarekin, alemanez egiten duenaren egunerokoan. Umeen kasuan are argiagoa da hau: Euskarazko libururik irakurrik ez bagenu, egunaren amaieran *etorri hortzak garbitzera* estiloko esaldi banda entzunda joango lirateke ohera. Hizkuntzarekin errimak egin, tamainak neurtu eta komparatu, barre egin, goseak hilik ala euri-tan blai geratu ahal izateko euskarazko liburuak behar ditugu Berlinen. Ezin baitit euskaraz egitera behartu, seduzitzeko estrategiak erabiltzen ditut...

Bi oinarri edo pilare horiez gain, Berlineko Euskal Etxea ere aipatu behar dut. Hemen bizi garen euskaldun batzuen artean hartu-emana izateko aukera ematen du. Eta aldi berean, kontaktuan jartzen gaitu Euskal Herriko datozten musikari, bertsolari, idazle, zuzendari zein historialariek. Oraintsu Berlinen ospatu den hirugarren *Baskisches Filmfest* zinemaldian esaterako, lehenengo, ikusgai izan diren bost filmak euskaraz egindakoak izan dira. Edo Euskararen Egunaren harira, lehengo ostiralean, Danele Sarriugarteak eta biok, Euskal Etxeko beste kide batzuekin batera, Berlini buruzko testuen irakurketa elebiduna eskaini genuen. ◀



## HIRUKAko kide izan gura duzu?



Bi aukera dituzu:

- 1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota: 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota: 33 €

- 2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaleko izango zara, hainbat onurez baliatuz.

- Bazkide Erabiltzailea  
 Bazkide Laguntzailea

Izena

### Hiruka laguna

Urtean 35€  Urtean \_\_\_\_\_ €

NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea

Herrialdea

E-posta

Herria

Telefona

Kontu korronte zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

بما ان تنوع اللغات ثروة عالمية، فإن لغة الاوسكيرا الباسكية هي لون كنزا

*Hizkuntzen aniztasuna mundutarron aberastasuna izanda, gure harribitxiaren kolorea euskara da.*

# «Madrilen gauden bertsozaleok astero batzea polita litzateke»

**Iñigo Urizar Lanz**

areetarra eguztenero elkartzen da beste hiru lagunegaz Madrilgo euskal etxean, bertsotan egiteko.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

**M**adrilera joan zenean, gauza asko utzi zituen atzean Iñigo Urizar Lanz «Uri» areetarrak; penatuta zeoen bertsotan jarduteko lagunik ez zeukalako. Hala ere, bilatu ostean, beste hiru bertsozale topatu zituen: Koldo busturiarragaz, Aratz basauriarragaz eta Joseba zornotzarragaz batera, Madrilen bertso-eskola sortu du Uri-k. Begi-bistan daukate bertozaileen topaleku bilakatzea.

## Zelan bururatu zitzaiuen Madrilen bertso-eskola sortzea?

Lehenik eta behin, aitortu behar dut ni euskaldun berria naizela, eta, ALBEn sartu aurretik, bertsolaritzaren munda ez nuela ezagutzen. Lagun baten bitartez hasi nintzen Algortako bertso-eskolara joaten; oso gustura nengoen. Baino, lan-kontuak direla-eta, orain urte eta erdi-edo, Madrilera joan behar izan nuen. Oso penatuta gelditu nintzen; atsegin dut bertsolaritza. Gauzak horrela, bilatzen hasi, eta pare bat lagun topatu nituen, Madrilen bertso-eskola abiatzeko.

## Ikasle asko dauzkazue?


Lau gara. Egia esan, ez gara ikasleak; ez dago ikaslerik. Laurok joaten gara euskal etxera, eta abesten jartzen gara; oso informalda da.

## Noiz batzen zarete?

Aratzek hitz egin zuen euskal etxekoekin; ondo hartu gintuzten. Asteazkenero, hango gela bat uzten digute bertsotan egiteko.

## Bertso-saioak egiteko asmorik?

Euskararen Egunean afaria egingo dute euskal etxean; bertan abestuko



Lan-kontuengatik joan behar izan zuen Madrilera Iñigo Urizarrek, bertso-mundua atzean utzita. © IÑIGO URIZAR

dugu. Ireakia izango da; 50 pertsona inguru egongo dira. Ez dugu saio formalik egiteko asmorik, momentuz.


## Bertakoek zelan hartzen dute bertso-eskola bat egotea Madrilen?

Bertan dauzkadan ezagunek ez dute euskal kultura ezagutzen, eta ez dut uste eurei asko axola zaienik. Gertukoenei, ordea, kontatu izan diet: batzuek barre egiten didate, eta besteek errespetu osoz hartzentzu.

Behin parrandan geundela, gaztelaniaz hasi nintzaien bertsotan, goizeko ordu txikietan; bertsolaritza zelako den ezagut zezatela nahi nuen. Bada, arrakasta izan zuen kontuak; gustatzeaz gain, barreak egin genituen.


## Zer lortu gura duzue bertso-eskola-ren bitartez?

Madrilen bertso-eskola indartsua sortzea gustatuko litzaiguke; bertan euskaldun asko dago, eta denok gaude elkarrengandik sakabanatuta. Ziur gaude Madrilen bertsozale asko da-goela; kontua da ez gaituztela ezagutzen. Oso polita izango litzateke bertan gauden bertsozaleok eta euskaltzaleok astean behin elkartzeko ohitura hartzea. ◀



# Всі мови свої якщо наша мова дійсно своя.

*Hizkuntza guztiak gureak dira gure hizkuntza geurea bada.*



## «Guk jaso dugu Argia Ereiten, baina jende askoren saria da»

**Argia Ereiten euskara-saria** jaso zuten, pasa den martitzenean, Alfredo Lopez de Gereñu Gartzia de Vicuña *Bertxo* (Donostia, 1961) eta Josu Esnaola Aranguren (Elgoibar, 1962) euskaltzaleek. Euskalgintzak proposatu zituen, Berbalaguna ekimena abiatzeagatik. Milaka lagun euskara-maila hobetu eta harreman-sare euskaldunak izateko lagundi dio egitasmoak. Euskara-irakasleak izateaz gainera, hainbat proiektu bultzatu dute: Bizarra Lepoan, Egizu, Berbaldun, Egun On, ALBE, Bost Axola, sOrtuak...

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Pasa den astelehenean eman zizueten Argia Ereiten euskara-saria. Zer sentitu zenuten jasotzean? **Alfredo Lopez de Gereñu:** Batetik, bertigo pixka bat, ez dakizulako zenbateraino merezi duzun, ikusten duzulako inguruan dagoen jende askok gutxinez zuk meritu haina egin duela, eta, alde horretatik, bertigo hori. Baita poza ere: euskalgintzak proposatu gaitu; oso pozgarria da.

**Josu Esnaola:** Lehenengoa, sorpresa. Inondik inora ez nuen espero halakorik, ze ez dut uste egin duguna hainbesterako denik ere ez. Eta *Bertxo*-k esan duena, beste askok beste lan pilo bat egin du, eta ez du inolako saririk jaso, eta, orduan, zergatik gu? Apurtxo bat, sorpresa. Poza bai, ze esaten duzu: «ematen du zeozer egin dugula, eta ondo egin dugula». Bertigo nik ez nuke esango.

**A.L.G.:** Bertigo edo zalantza. Agian zalantza da hitz egokiagoa.

**J.E.:** Bai, ze jende askok egin du itzelezko lana, eta hor isilean geratu da; isilean dago, eta guri ez dakit zergatik eman diguten. Bueno, zergatik pentsatzent dut badakigula baina... hainbesterako izan da gure meritua? Zalantzan nago.

**A.L.G.:** Uste dut gehien garela Berbalaguna proiektuaren hastapenetako aurpegia, baina horrekin batera esan behar da jende pila baten lanari esker aterra zela hori aurrera. Gu agertu ginenei argazkian, eta orain, hemen gaude saria jasotzen, baina jende askoren saria da. Nik horrela ulertzen dut. Bizarra Lepoan-en bazkide gehien-gehienak implikatu ziren;

euskaltegietan ere, langile guztiak hasieratik implikatu ziren. Gero Euskara Zerbitzuak eta Udalak basestu egin zuten. Elkarlan baten aurpegia gara gu. Elkarlan horren saria ikusten dut.

**Zelan sortu zen Berbalaguna proiektuaren ideia?**  
**J.E.:** Ikusten genuen bazegoela behar bat hemen;

**“Uste dut kasu gehiegigi egiten diogula askotan Euskaltzaindiari, eta lagunartean ez daukagula zertan beti zuzen egin”**

jende asko ahalegin handia ari zela egiten euskara ikasteko, bere burua euskalduntzeko, baina gero askotan ahalegin hori geratzen zela ezerezean, hutsean. Behin lortuta euskalduntzea edo bere ikasprozesua amaituta, gero apurtxo bat umezurtz geratzen zela. Askotan, prozesua amaitu eta ez zeukala inguruan norekin erabili, edo erraztasun gutxi, horrelako gune euskaldunak aurkitzeko, eta ahalegin hori azkenean ezerezean geratzen zela, edo ia hutsean. Eta ahalegin horri etekin txikitxo bat-edo ateratzeko asmoz. *Bertxo* ari zen graduondoko bat egiten, soziolinguistikarena-edo, eta egin behar zuen proiekturen

bat, ikasturte bukaerakoa-edo. Eta bururatu zitzaion izan zitekeela proiektu majo bat, ez teoria-mailan bakarrik, baizik eta gero praktikan jartzeko Getxon. Gutxi gorabehera horrela izan zen, ez?

**A.L.G.:** Bai, holaxe izan zen.

**Horretan laguntzeko, jendea ekarri zenuten, horrelako esperientzien berri emateko, ezta?**

**A.L.G.:** Bai, ibili ginen, bai Donostian, bai Gasteizen, Arrasaten ere bai, eta ekarri genituen Arrasateko Zahar-berrikoak, eta elkartu ginen hiru euskaltegi-tako irakasle guztiok edo gehienok, behintzat. Batu ginen Santa Eugeniako eskoletan, eta azaldu egin zituzten haien nola egiten zuten. Guk, berriz, zalantzak galdeitu genizkien. Polita izan zen topaketa hura, guztiok elkarren berri edukitzeko. Proiektu baten bultzatzaile izango ginenok kontaktu bat izateko, eta proiektua jada martxan zeukatenen berri zehatzta-edo izateko.

**J.E.:** Eta euskaltegietako irakasleak apurtxo bat motibatzeko eta animatzeko, ikasleak proiektura bultzatzen. Hasieran, batzuek beldur apur bat zeukaten, ikasleek ez zutela erantzungo, edo gogorra egingo zitzaiela ikasleei ezezagunekin elkartzea, eta euskaraz egiteko, gainera. Uste dut Zahar-berrikoek zalantza horiek uxatzen lagundi zigutela.

**Zahar-berrikoakaz gainera, Kuadrillategikoakaz ere ibili zineten, ezta?**

**J.E.:** Bai, bai.

# Різноманітність мов - світове багатство, а басська мова - світло нашого скарба.

*Hizkuntzen aniztasuna mundutarron aberastasuna izanda, gure harribitxiaren kolorea euskara da.*



**A.L.G.:** Beranduago hitz egin genuen Kuadrillategikoekin, eta ekarri egin genituen, ideiaren berri ere zabaltzeko, baina jada ez hain modu estuan lotuta Berbalaguna proiektuarekin.

**Berbalagunaren hasieratik eta Egizuren sorreratik ia 20 urte pasatuta, zelan ikusten dituzue orain?**

**A.L.G.:** Egizu proiektua ederto baten ikusten dut. Garaia hartan ez genuen hain aurrera begiratzen, baina begiratuz gero, imajinatu ere ez genuen egingo, edo nik, behintzat, ez nuen egingo horrelako maila lortuko zuenik. Gaur egun, hainbat esparrutan dabil proiektua: bai guraso eta umeekin, bai talde arruntekin, baita gaztekin ere; kultur eta aisialdiko eskaintza oparoa egiten du, eta, gainera, eskaintza hori eta beste dena, modu profesionalean landuta. Kristoren aurrerakada egin du proiektuak. Sendo ikusten dut.

**J.E.:** Bai, gu hasi ginenean, zen etxetik ibiltzeko proiektu bat. Egiten genituen gauzak oso modu xumentan, eta baliabide handirik ere ez geneukan, egia esanda. Eta gaur egun daukan maila eta dauzkan adar guziak: Mintzakuadrillak eta halakoak...

**A.L.G.:** Bloga bera proiektuaren oso erakusgarri polita da. Ikusten da zenbat lan egiten duten, zein ederto iragartzen duten, eta islatzen duten, egin eta gero zer egin den. Ederto. Horrek ere poza ematen digu.

**Proiektua hobetzeko ekarpenen bat duzue?**

**A.L.G.:** Datorren urterako, kar, kar, kar.

**J.E.:** Bueno, lehengoan aipatu genuen edo nuen;

nik uste dut beste urrats bat izan daitekeela proiektu horretan dabilen jendearen ingurunera zabaltzea apurtxo bat. Izan beharrean pertsona solteak... gaur egun, pertsona solteak dira, Mintzakuadrillak-en izan ezik: hor kuadrillak ibiliko dira. Baina, Berbalaguna ekimenean pertsona solteak dabiltza, eta saiakera bat egin beharko litzateke pertsona soltee-

**“Badaukat buruan  
nola garai hartan geratu  
zitzaidan zalantza bat:  
ez ote genituen mintza-taldeak  
libreegi uzten”**

na izan beharrean, pertsona horien ingurunea ere lantzea eta saiatzea erakartzen proiektura: lagunak, familia, inguru hurbila nolabait. Hortik kanko ere, apurtxo bat eguneroko bizitza normalean ere, era bilerari begira, beste urrats bat emateko. Baina horrek ere lan handia eskatuko du. Lehenengo pertsona horiek konbentzitu behar, gero pertsona horiekin ingurua aztertu, ingurukoengana jo, horiei ere apurtxo bat burua jan... Uste dut hori litzatekeela hurrengo pausoa, baina ez dakit. Hori bururatzan zait. Zuk, *Bertxo*, bazeneukan asmoren bat-edo, ezta?

**A.L.G.:** Bai, baina bueno, aparkatu egin dut.

**J.E.:** Bainak ekarpen gisa. Nahiz eta zuk ez egin, besteren batek egin dezake.

**A.L.G.:** Badaukat buruan nola garai hartan, lehenengo urte haietan ibili eta gero, geratu zitzaidala zalantza bat: ez ote genituen mintza taldeak, nolabait esatearren, libreegi uzten. Hasi mintzapraktikan eta listo, eta, beharbada, hor hausnarketa bat egin daiteke, eta landu daiteke pixka bat. Nolabait aztertu bidea, ea ildotzuk markatu al zaizkion ikasleari: zer praktikatu behar duen, zer komeni zaion gehiago praktikatzea. Uste dut hori badaukagula hausnarketa bat egiteko. Ibili beharreko bidea.

**Berbalagunaz harago, zelan ikusten duzue gaur egun Getxoko hizkuntza-errealtitatea?**

**A.L.G.:** Ez naiz oso ona azterketak egiten. Ikusten dut aurrera egin duela euskarak Getxon. 30 urte dira etorri nintzela hona, eta aldea dago: gehiago entzuten da. Zenbakiek ere esaten dute aurrera egin dela, jende gehiagok dakiela, eta jende gehiagok zerbaiz dakiela, kalean ere gehiago entzuten dela, baina oraindik gutxi da. Bide luzea geratzen da egiteko.

**J.E.:** Berbalagunak balio izan du, batez ere, euskara ikasten ari direnak kalean euskara erabiltzeko eta praktikatzeko, baina ez dugu lortu beste erregistro batera pasatzea. Askotan hor mantentzen dira. Praktikatzen dute, baina ikasi duten euskara estandar horretan, eta asko kostatzen zaie lagunarteko hizkera informal batera pasatzea. Zuzentasunari asko begiratzen diote, eta ez hainbeste adierazkortasunari, eta uste dut oso *enkorsetatuta* daudela. Ez diot errua Euskaltzaindiarena denik, ze Euskaltzaindia horretarako dago, arauak ipintzeko, baina uste dut kasu gehiegi egiten diogula askotan Euskaltzaindiari, eta kaleko eguneroko hizkeran, lagunartekoan, ez daukagula zertan beti zuzen egin. Arauak ere apurtzeko daude, eta adierazkortasunari begira apurtu behar baditugu arauak, bida apurtu, eta ez da ezer gerta zten. Baina uste dut horren beldur garela. Bidi esango digutelakoan: «txarto egin izan duzu, hori ez da horrela esaten». Eta hori guk barneratuta daukagu, baina euskaldun berri hitza ez zait gustatzen, ikasten ari direnak edo orain dela gutxi euskaldundu direnak hori are barneratuago daukate, eta luzera, erabilerari begira, askotan kaltegarria da. Orduan, arauak apurtu behar baditugu, apurtu, baina adierazkortasuna bilatuz.

**Azken mezuren bat?**

**J.E.:** Bai, sari honek animo gehiago eman dizkigu jarraitzeko lanean.

**A.L.G.:** Bai, pilak kargatzeko. ◀

**COMERCIAL  
de LIMPIEZA  
VILLAR** S.A.  
Andres Iasi 11, Behe ezkerra (Bilbao)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

**AIXERROTA BHI**  
TEKNOLOGIAK  
BATXILERGOAK · NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
· GIZA ETA GIZARTSI ZIENTZIAK  
DERRIGORREKO BIGARREN HEZKUNTZA DENDO BERA  
ZERIGINAK IRATSEKO GELA (A ETA D ERREDUA)  
Informazio gehiago:  
[www.aixerrotabhi.net](http://www.aixerrotabhi.net)  
Tf. 94 491 17 86

**aldai**  
TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK  
Basagotit etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

**SARTU GURE  
WEB BERRIAN**  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)  
902 103 763  
cianoplan  
GLOBAL PRINTERS

# Egunkariak

prentsa eta aldzikariak  
Alzoko Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34  
[www.egunkariak.com](http://www.egunkariak.com)

**EKIN**  
Jatetxea  
Bolue 4, Algorta - 94.608.04.62

**GARAIZAR**  
BARRIKUNTZAK  
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK  
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6  
[regaraizer@gmail.com](mailto:regaraizer@gmail.com) - [www.garaizar.biz](http://www.garaizar.biz)  
Illeta kalea 1 ALGORTA

**GAVRKO**  
  
ZABALA, 9  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

**GetxoGas**  
Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00

**GOIZEAN**  
"Gozoki eta prentsa, gubix denik ez pentsa"  
Prensa - Frutu lehorak - Aldzikariak - Lixarreria  
Orduña Mendatea 1  
Tf. 94 430 22 13  
GETXO

**GURE  
ETXEA**  
taberna  
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / Tf. 94 463 68 80

**Irribat**  
C/ Loiola Ander Deuna, 74  
Teléfono: 946 764 625  
Fax: 946 762 582  
Web: [www.irribat.net](http://www.irribat.net)  
  
MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAITZA BEREZIA

**DIDAK**  
**hamilton**  
**IDIOMAS**  
Dr. Landia 6 eta Iberri 9 / 48600 SOPELA  
TE. 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

**ITXASGANE**  
prentsa • aldzikaria  
GETXOKO KIROL PORTUA  
